


EKI PROIEKTUA

EKI proiektua, ikastolen elkarteko 52 profesional eta adituk sortu duten ikas material berri eta berritzailea da. Datorren ikasturtean Andra Marin Bigarren Hezkuntzako maila guztietan inplementatua egongo dena.



ZER BEREZITASUN DITU?

Bizitzarako prestatu

Konpetenzietan oinarritua dago, hau da, gure neska mutilek ikasten duten hori, bizitzako egoera errealei aplikatzen ere ikasten dute. Honela, ikasleak bizitza pertsonaleko, bizitza sozialeko, bizitza akademikoko eta lan eremuko egoera errealei aurre egiteko trebetasunak eskuratzen ditu.

Pertsonaren garapen osoa

Arloetako konpetentziez gain, konpetentzia metadiziplinarrak ere landuko ditu, hau da, elkarrekin bizitzen ikasi, norbera izaten ikasi, egiten eta ekiten ikasi, ikasten eta pentsatzen ikasi eta komunikatzen ikasi.

Euskal Curriculumua bizkar hezur

2008-2009 urteetan hainbat Euskal erakundek eraikitako Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumean oinarritzen da EKI.

Informazio eta Komunikazio Teknologia integratuak

Jada gure eguneroko bizitzan IKTak integratuak dauden eran, EKlren bidez ere hainbat web orri bisitatu, eta beste hainbat programa eta aplikazio informatiko lantzen dira. Beti ere, bizitzako egoera hauei aurre egiten lagunduko gaituzten erreminta gisa.

Proiektu aitzindaria da Europan. Izan ere, beste lurraldeetan lehengo ikasmaterialak egokitu egin dituzte konpetenzietan oinarritutako ereduera. EKI proiektua, berriz, zerotik (baina ez hutsetik) abiatuta egin da.

